beherago, baina Aiako Harriei begira. Sarri agertzen da mendi hau bere obretan.

Hasieran gizakiak ere margotzen zituen: segalaria, buru karratudun pertsona... Baina geroztik ez zaio atera pertsonak irudikatzea, berak ere ez daki arrazoia. «Ez da gizakiarekin haserre nagoelako, justu kontrakoa», argitu du. Paisaiak dira bere gaia, naturarekiko eta lurrarekiko maitasuna.

Margo batzuek gizakiok naturarekin zer egiten ari garen oroitarazten digute, mendi polit baten gainean antena bat ikustean, edo parke eolikoak paisaia zoragarrien erdian. Batean "Euskal Y"-a agertzen da txistu eta danbolinarekin, hausnarketa bat eragiteko jendeari eta «hainbat astakeriaz» pentsarazteko. «Koadro guztiek dute bere *malaletxea* eta ironia».

**Begientzako jokoak**

Errealismo magiko eta amestua deitzen dio Kortadik Valverderen pinturari, eta gauza batez ohartarazten du: «Margolari batek nekez pinta dezake Javier Valverdek pintatzen duen bezalako ametsezko paisaia bat ez baldin bada Oiartzunen bizi eta hazi izan, muinotxo berdez, zuhaitzez eta zokogune eta behe-ibarren artean kantari dabiltzan errekastoez inguratuta».

Valverdek gaineratu duenez, hainbat plano sartzen ditu koadroetan, joko bat eginez begientzat, gauza ezinezkoak ahalbidetuz, eta lehen aipatu dugun umore puntuarekin segituz.

«Margotzen hasi eta gauzak ateratzen joaten dira. Gehienetan inprobisatu egiten dut. Lehengo egunean koadro batekin hasi nintzen eta brotxa handi batekin dena zikindu nuen. Hiru-lau plano egin nituen», kontatu digu. Etxeko estudio txikian egiten du lan, barrenean baina ia kanpoan egonen balitz bezala, atea zabaldu eta bista ederrak baititu. Koadroak izugarri lantzen ditu.

Katalogoa egiteko obrak biltzen aritu dira, eta 223 koadro aurkitu dituzte, jendearen eskuetan zeudenak. «Galdezka ibili gara eta erakusketarako uzteko eskatu diogu jendeari, garai guztiak ordezkatzeko. Pozik utzi dizkigute», agertu du Saguesek.

Ezuste ederrak hartu ditu margolariak aspaldi ikusi gabeko koadroekin berriro topo egin duenean. «Hogei urtez ikusi gabeko lanak aurkitzea zoragarria izan da. Batzuetaz ez nintzen oroitu ere egiten, egin eta berehala atera zirelako estudiotik».

Bere koadroen %70 baino gehiago jendearen eskuetan dago, eta anitz ezezagunak dira, sekula erakutsi gabeak. Horregatik, horiek ezagutarazi nahi dituzte. Koadroez gain, koadernoak, arkatzez egindako marrazkiak, lagunei oparitutako kaxak, Antton anaiaren diskorako egindako azala, Izurako erakusketako kartela eta bitxikeria gehiago ikusiko ditu bisitariak.

GEHIEN MIRETSITAKOA

**Edorta Kortadi adituaren arabera, artista honek astiro eta koherentziaz margotzen segitzen du gehien atsegin eta miresten duena: mendien tolesdurak, koniferoak eta zuhaitz enborrak, pilotalekuak, hodeiak...**

EZUSTE EDERRAK

**Katalogoa egiteko obrak biltzen aritu dira eta 223 aurkitu dituzte, jendearen eskuetan zeudenak. Egileak ezuste politak hartu ditu, lan batzuk segidan atera zirelako estudiotik eta ez zelako horietaz oroitu ere egiten.**

LAN EGITEKO MODUA

**«Margotzen hasi eta gauzak ateratzen joaten dira. Gehienetan inprobisatu egiten dut. Lehengo egunean koadro batekin hasi eta brotxa handi batekin dena zikindu nuen. Hiru-lau plano egin nituen».**

### Fitxa

**Lekua:** Koldo Mitxelenako Ganbara aretoa.
**Data eta ordua:** Abuztuaren 27ra arte. Asteartetik larunbatera 11.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 20.00etara.

CRÍTICA **ópera**

# ¿Gioachino Rossini o «Aquí no hay quien viva»?

**Mikel CHAMIZO**

No recuerdo la última vez que se escucharon abucheos en el Kursaal. Con lo políticamente correcto que es el público donostiarra a la hora de aplaudir, resultaron hasta chocantes los «buu»-s que algunos indignados con la propuesta escénica lanzaron ayer sin ninguna timidez. Aunque tampoco debería sorprender que a los puristas no les gustase la idea de Rechi de adaptar la trama del "Barbero" a un plató de televisión y a la grabación de una telenovela. Quizá no por la adaptación en sí, pues planteaba cambios mínimos en el libreto original, estaba realizada con coherencia, aportaba un ritmo trepidante y permitía lucirse a los actores. Lo que más pudo molestar es que el "Barbero" se convirtiera en una sucesión interminable de gags, algunos bastante zafios, como el de José Manuel Zapata imitando al vidente friki Carlos Jesús durante 15 minutos o que se usara la música de la tormenta como banda sonora para un anuncio de laca. Otros fueron divertidísimos, como la gran escena coral del final del segundo acto con el cadáver de Fiorello pasando de mano en mano ante las narices de los policías. La función consiguió arrancar una carcajada tras otra, ahora bien, los guiños al humor inteligente fueron inexistentes en el esperpento perpetrado por Rechi: era el tipo de humor de series cómicas de sal gorda, como "Los Serrano", "Aída" y semejantes. Es curioso que esta inmersión de Rossini en el humor "*typical spanish*" fuera lo que más llamó la atención cuando esta producción se estrenó en Friburgo, donde la consideraron almodovariana.

La clave para disfrutar de este "Barbero de Sevilla" fue rebajarse al nivel intelectual de la función y dejar los prejuicios a un lado. Y también aceptar que, aquí, lo que primaba era el teatro sobre la música. Por ejemplo, y aunque las modernas producciones rossinianas suelen generar una tremenda actividad sobre el escenario, es casi una regla de oro que a los cantantes se les deja espacio cuando cantan sus arias estelares. Aquí no: mientras Rosina cantaba "Una voce poco fa" tenía a uno arreglándole el pelo, a una maquillándola, a otro rondándola con un guión y a uno haciendo break-dance por detrás. Demasiado a menudo resultaba dificilísimo concentrarse en la música con todo lo que ocurría sobre el escenario. Ahora bien: ¿qué hubiera quedado de este "Barbero" sin la puesta en escena tan exagerada? No mucho, pues musicalmente, y a excepción de la parte orquestal y la dirección, las voces de los solistas no entusiasmaron a nadie, o no lo hicieron, al menos, por encima de sus dotes actorales, donde algunos de ellos, como José Manuel Zapata, se mostraron soberbios.

### Ficha

**Ópera:** 'El barbero de Sevilla' de Rossini sobre la comedia homónima de Beaumarchais.
**Intérpretes:** José Manuel Zapata (Almaviva), Pietro Spagnoli (Fígaro), Andrew Shore (Bartolo), Manuela Custer (Rosina), Lorenzo Regazzo (Basilio) + Coro Easo y OSE.
**Dirección musical:** Andrés Orozco-Estrada.
**Dirección escénica:** Joan Anton Rechi.
**Estreno:** Kursaal (Donostia), 9-8-2011.

